

Haur bat izateko nahiak gidatu du bere aukera

Mikel Olaiz Garmendia aita bakarraren testigantza bildu du TXINTXARRI-k aste honetako familia eredu ezberdinen gaineko seriean. Haurdunaldi subrogatu bidez izan du haurra / 8-9

Sanpedrorik ez, baina gustu eta adin guztiei zuzendutako kultur ekintzak izango dira ekain eta uztailean / 2

'Bizi gira...kutxa bira!' ekimenari harrera xume baina beroa egin diote herritarrek, Tximistarretan / 4

Datu ofizialen arabera, COVID-19ak herriko biztanleen %8,9 kutsatu ditu 2020ko martxotik hona / 3

Ostadar Saskibaloi taldeko I. seniorrak garaipena lortu eta txapelketako finalerako sailkatu da / 10



Zaleak konkistatu ditu

'El Conquistador del Caribe' saioan parte hartu du Leire Mayo Arteagak / 6-7

TXINTXARRI

SUMMER IS MÓ
2 mó
99€
batzuk eguzkitakoak izan daitezke

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA
MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Kultur ekintza ugari, datozen bi hilabetetan

Musika emanaldiak, bakarrizketak, marrazketa-erakusketa eta kale-antzerkiak izango dira, besteak beste, ekainean eta uztailean, Lasarte-Orian. Ttaku Kerekin elkarlanean, Santa Ana eguneko parodia ere prestatzen ari direla jakinarazi du Udalak

Txintxarri

COVID-19ak eragindako pandemiaren bilakaerak hala behartuta, aurtengo San Pedro Jaiak bertan behera utzi ditu Lasarte-Oriako Udalak. Hala ere, ekainerako eta uztaileko kultur ekintzaz betetako egitaraua aurkeztu dute. Askotariko kultura-ekintza ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek.

Brancussi eskolako ikasleen XVI. pintura eta margolaritza erakusketarekin zabalduko da ekaineko programazioa. Zehatz esanda, ekainaren 4an zabalduko ditu ateak, eta hilaren 11ra arte izango da hori bisitatzeko aukera.

Ekainaren 12an, berriz, Kai Nakaik musika emanaldia eskainiko du. Auditorioan izango da kontzertua, 19:00etan, eta sarrerak 5,50 euroren truke erosi ahalko dira.

Ekainaren 15 eta 17an, Udala Musika Eskolako ikasleen kontzertuak izango dira. 19:00etan izango dira, eta doakoa izango den arren, gonbidapenak eskuratu beharko dira.

Ekainaren 18an, aldiz, Donostiako Elias Kerejeta zinema eskolako *Zinema Habian* proiektuan parte hartu duten Oriarte Institutuko DBH4ko ikasleen lana proiektatuko dute. Auditorioan izango da, 18:30ean eta gonbidapenak beharko dira.

Bakarrizketak ere bai

Ekainaren 19an, bakarrizketen lehen saioa izango da; Oscar Terol eta Sara Escudero arituko dira auditorioko oholtzan. Erdaraz arituko dira, eta sarrerak 12 eurotan salduko dituzte. 19:00etan izango da emanaldia.

Ekainaren 20an, helduentzako antzerki saioa izango dute lasarteoriarrek. The Chanclettes taldeak *AntiCoronCAVA.ret* lana taularatuko du. Hori ere erdaraz, 19:00etan eta 12 euroren truke.



Udal-ordezkarriak, ekainerako eta uztaileko agenda aurkezten. TXINTXARRI

Ekainaren 25ean, herriko musika-talde bat arituko da kultur etxean. Makulu Ken taldeak afrobeat doinuak eskainiko dizkie bertaratzen direnei. 19:00etan izango da, eta sarrerak 5,50 euroren truke salduko dituzte.

Ekainaren 26an, berriz ere bakarrizketa saioak izango dira. Oraingoan, Nerea Garmendia eta Santi Rodriguez izango dira auditorioan, erdaraz. 12 euro balio dute sarrerak, eta emanaldiak, 19:00etan izango dira.

Nafarroako doinuak herrira

Ekainaren 27an, La Ribera Canta taldearen eskutik, Nafarroako jotak entzuteko aukera izango da. 12:30ean izango da emanaldia, eta 5,50 eurotan salduko dituzte sarrerak.

Egun berean, baina 18:00etan, familia-antzerkia izango da. Mago Sunek *Bat, bi, hiru...Magia* ikuskizunarekin gozaraziko ditu sendiak. Euskaraz izango da, eta sarrerak 3,80 euro balio dituzte.

Ekainaren 28an, berriz ere, bakarrizketa saioak izango dira. Oraingoan, gainera, herritar bat ere arituko da oholtza gainean. Mikel Bermejorekin eta JJ Vaquerorekin gozatu ahal izango

dute herritarrek. 19:00etan izango da, erdaraz, eta sarrerak 12 euroren truke eskuratu ahalko dira.

Ekaina amaitu aurretik, beste bi ekintza izango dira. San Pedro egunez, hilaren 29an, Xilipurdi antzerki taldeak *Salam* familia-antzerkia taularatuko du. Euskaraz izango da, 17:00etan, eta sarrerak 3,80 eurotan truke.

Bertso-festa eder batekin agurtuko dute hilabetea. Egun berean, sei bertsolari arituko dira kultur etxeko auditorioan: Ane Labaka, Lierni Rekondo, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Uxue Alberdi arituko dira bertsotan, Maddi Labaka gai-jartzaileak gidatutako saioan. Iluntzeko 20:00etan izango da ekitaldia, eta sarrerak 5,50 euroren truke eskuratu ahalko dira.

Uztaileko uda giroa aprobetxatuz, kale antzerki batekin emango diote hasiera hilabete horretako kultur-agendari. Askotariko ekintzak izango dira: kontzertuak, kale-ikuskizunak eta XVII. Dantza Zirkuitua izango dira, besteak beste. Horien artean, Aroa Lasa Aro abeslari lasarteoriarrek emanaldia eskainiko du, eta baita Willis Drummond eta Olatz Salvador musika taldeek ere.



Lasarte-Oriako PPko bozeramaile Alex Saenz, herriko taberna batean. LASARTE-ORIAKO PP

Ostalariei udal-tasak kentzeko eskatu du Lasarte-Oriako PPk

Uztailean "anbizio handiko bonuen kanpaina" abian jartzeko galdegin diote popularrek udal gobernari

Txintxarri

Lasarte-Oriako PPko bozeramaile Alex Saenzek nabarmendu du ostalaritzari "asko" zor diola herriak, eta haren orainerako zein etorkizunerako "giltzarria" dela. Aurtengo San Pedro Jaiak bertan behera geratu direla-eta, uztailean "anbizio handiko bonuen kanpaina" egitea galdegin du, tabernariak egun horietan pairatuko dituzten galerak konpentsatzeko.

Udal-tasak bertan behera uzteaz gain, Saenzek udal gobernari eskatu dio dirulaguntzen lerroa handitzeko, eta ekipamenduan inbertsioak egin izanaren baldintza bertan behera uzteko. "Eskuzabaltasuna eskatzen du ostalaritzak, eta baldintzarik gabeko laguntza eman behar zaio".

Gipuzkoa mailako zenbait datu eman ditu Saenzek. "2021. urtea hasi zenetik, ostalaritzaren

sektoreko lanpostuen %10 eta %12 artean galdu dira, 2020ko urte-tarte berarekin alderatuta". Lurralde historiko horretan 8.673 behargin daude ABE E espedientearekin.

Tabernariaren errealitatea "zaila" dela azpimarratu du Lasarte-Oriako PPko bozeramaileak, herriko aktibitate ekonomikoaren %61 delako zerbitzuen sektoreari dagokiona. "Familia horietako askoren diru-sarrerak ostalaritzatik datoz eskusiboki".


Ostalarien eskaera

Ostalaritza Lasarte-Oriak antzeko eskaera egin zuen maiatz erdialdean. Zenbait udal-tasa ez ordaintzea eskatu zioten udal gobernari; ordaintzea zenbait aurre egiteko dirulaguntzak ematea; eta tokiko kontsumoa sustatzeko ekintzak egitea, erosketa-bonuak edo marketin kanpainak, esate baterako.

Margoak eta ipuinak

Lasarte-Oriako Udala antolatutako auzoz auzoko ikastaroen lehen txanda amaitu da; urriari hasiko da bigarrena. Azken bi saioak Orian eta Sasotetan egin zituzten. Brunet parkean etxetik eramandako kamisetak-eta estanpatu zituzten, hostoak, loreak...erabiliz. Jaizkibel plazan, aldiz, Lur Usabiagak istorio harrigarriak kontatu zizkien bertaratu ziren haurrei.





2020ko martxotik hasi eta gaur egunera arte, iazko azaroa izan da intzidentzia gehieneko hilabetea herrian. TXINTXARRI

Eremu horian jarraitzen du Lasarte-Oriak

LABI aholku-batzordeak zenbait neurri arindu ditu: ostalariek eta merkatariek 00:00ak arte ireki ditzakete ateak, eta kultura-jarduerak ere gauerdian bukatu daitezke; edukieretan ez dute moldaketarik egin. 2020ko martxotik, COVID-19ak lasarteoriatarren %8,9 kutsatu ditu

Txintxarri

Apirileko eta maiatzeko datuak alderatuz gero, nabarmena izan da koronabirusaren oldarraldiaren jaitsiera Lasarte-Orian: eguneko, batez beste, 8,3 kasu atzematik, 3,8 diagnostikatzera. Edonola, aurreko hilabete amaiera aldera, jaitsiera hori geldotzen hasi zen, eta azken egunek joera hori berretsi dute. Are, intzidentzia-tasa metatua zertxobait igo da: maiatzaren 26an, 178,29 zen tasa hori; astebate beranduago, hilaren 2an, 220,53 –datu horiek izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik-. Hortaz, gure herriak eremu horian egoten

jarraitzen du, adierazle hori 60 eta 299 artekoa delako.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuen arabera, 2020ko martxotik aurtengo ekainaren 2ra arte 1.690 herritar kutsatu ditu COVID-19ak, ehun biztanletik ia bederatzik (%8,9). Birusa pairatu duten lasarteoriatar ia guztiak osatu egin dira, baina, tamalez, 23 pertsonak ezin izan dute errekuperatu, eta hil egin dira. Orain arte, 2020ko azaroa izan da intzidentzia gehieneko hilabetea: 275 kasu erregistratu zituzten, eguneko 9,16.

Eskualdeko gainontzeko herriak (Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil) ere eremu horian daude.

LABIk iragarritakoa

- **Gauerdira arte:** kultur jarduerak, ostalaritza eta merkataritza. Edukieretan aldaketarik ez.
 - **Garraio publikoa:** Irteerak, 00:00ak arte.
 - **Kirola aire zabalean:** Pertsona mugarik ez; barruan, gehienez, sei.
 - **Gida turistikoetako taldeak:** hamar pertsonakoak izan ahalko dute gehienez.
- *Indarrean, ekainaren 2tik*



NEURE KABUZ

JEXUX ARTETXE

Bizikidetzaz gizaridetzaz

Askok lan eskerga egiten ari dira bizikidetzaren 'zoru etikoa' gure kale eta auzoetan finkatzeko, belaunaldi berriei elkarren arrenkurarik gabeko bizitokia utz diezaiegun. Iraganari begira, indarkeriaren bidegabekeria adierazi behar diegu gure ondorengoei, irakaspen etiko nagusia bezala har dezaten, eta inoiz ahaztu ez dezaten nolako kalte eta sufrimenduak eragin dizkigun guztioi. Baina, asmo horri ez dio batere mesederik egiten gaizkile edo gaizkide izan direnen goraipamen publikoak. Abiaturu honetatik hasita, galde liteke zein den biktimagileek eduki behar duten lekua etorkizun hurbileko Euskalerrian.

Bortxa bidegabe horretaz baliatu zirenek, bide galgarri hori bukaera eman diote, eta hori ez da gutxi. Baina, gure arteko bizikidetzaz gizaridetzaz nahi badugu, esan beharra dago hori ez dela lortzen soilik hiltzaileek (edo beren lankide izan direnek) hiltzeari utzi diotelako. Onar dezagun garai berri baten aurrean gaudela. Baina, garai berri hauetan ere, aurrekoaren lortzatzak diren jarrera kaltetsuak ari zaizkigu agertzen. Hortxe koka genitzake ETAKoa izan den herritarrari bere inguru politikoan direnak egin ohi dioten 'ongietorri goresgarria', eta baita ere torturadore ezagunari botere nagusiak ematen dion 'domina laudagarria'. Iraganaren memoriak ezin du sufrimenduaren eragintza goreski.

Ezin daiteke bizikidetzaz indartu biktimagileen ibilbideari sari morala ematen bazaio. Ezin daiteke bizikidetzaz gizaridetzaz justiziari jaramonik egin gabe. Biktimagilea izan denak gizaridetzaz aukera probesten badu, bere buruaren eta gizarte osoaren mesederako gerta daiteke. Biktimarioak justiziari eta bizikidetzari eskaini liezaiekeena bere ibilbide kriminalaren autokritika da, eta egindako kalte bidegabea aitortzea. Horixe da belaunaldi berriei egin diezaiekegun irakaspenik emankorra.

Hirigintzako aholku batzordearen osaera berri du Udalak

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du Hirigintzako Plagintzarako Aholku Batzordearen osaera berri egin duela. Herritarren parte-hartzea bermatzeko asmoz sortu zuen organo kolegiatu hori; izaera "aholku-emailea eta deliberaziozkoa" du.

Eragile hauei luzatu zaie deia: La Esperanza, Oztabide, Sasoeta Sasoian eta Zabaleta Auzolan auzo-elkarteei; Aterpeari; Jalguneri; CCOO eta LAB sindikatuei; Danok Kide, Ttakun KE, Okendo Zinema Taldea eta Hermandad Nuestra Señora del Rocio kultur eragileei; Landaberri eta Burunzpe guraso-elkarteei; eta EAJ-PNV, EH Bildu, ELOP eta PSE-EE alderdi politikoei.



Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Zozketa!

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN festibalera joateko **HIRU EGUNETARAKO BONO**A zozkatuko dugu izena ematen duzuen bazkideen artean.

* Eman izena ekainaren 20a baino lehen.



25 URTE

harpidetza@ttakun.eus helbidean, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

Egurrezko kutxa ametsez bete dute

Viedmatik Seguraraino, Euskal Herri osoa eta diaspora zeharkatu ditu 'Bizi gira...kutxa bira!' ekimenak, baita Lasarte-Oria ere. Ametsez jositako egurrezko kaxari harrera xume baina beroa egin diote hainbat norbanako eta eragilek, Tximistarreta parkean

Iñigo Gonzalez Sarobe

Arroitz herritik (Nafarroa) iritsi zen egurrezko kutxa Lasarte-Oriako Tximistarreta parkera, maiatzaren 27an, ostegunarekin, arratsaldeko zortzietan. Errigora egitasmoko kide Ibaik ekarri zuen, bertaratu zirenen txalo artean. Kaxa txikia da, askok esperotakoa baino txikiagoa, baina Euskal Herriko eta diasporako norbanako eta eragileen amets guztiak kabitututa, Viedmatik (Argentina) hasi eta Seguraraino (Gipuzkoa), lasarteoriatarrenak tartean.

Osasun-egoera medio, antolatzaileek ez zuten deialdi masiborik egin, jende-pilaketak saihesteko aldera. 50 bat pertsona gerturatu ziren parkera, Lasarte-Orian lan ederra egiten ari diren zenbait eragileren izenean: Lasarte-Oriako AEK, Erketz EDT, Ttakun KE, Earra bertso-eskola, Irakurle Txokoa, Buruntzaldeako Gazte Sortzaileak eta Belarmeta menditaledea. Nafarroako Arroniz herritik Gipuzkoara kutxa ekarri

zuenak, Ibaik, Errigoraren gaineko zertzelada batzuk eman zituen. "Egitasmoak hiru ardatz ditu: euskara, auzolana eta elikadura-burujabetza". Horren ostean, Lasarte-Oriako AEK-koei eman zien egurrezko kutxa, eta baita hitza ere. Ordezkariek azpimarratu zuten "herri osoa" dela beharrezkoa euskara sustatzeko lana burutzerako orduan.

Tomax Arruti eta Pontxo Morales txalapartariak girotu zuten ekitaldiaren hasiera. Horren ostean, Erketz EDT taldeko dantzari finek agurra dantzatu zuten. Gorputza astintzetik, mingainari eragitera: Amets Arzallus bertsolariak idatzitako *Hitza da gure lurra* manifestua

50 BAT PERTSONAK PARTE HARTU DUTE 'KUTXA BIRA' EGITASMOAREN HARRERA EKITALDIAN

irakurri zuten Ttakun KEko zuzendaritzako kide Mari Karmen Ormazabalek eta Edu Galardik.

Bertsoak, musika, literatura...

Diziplina desberdinak jorratzen dituzten eragileek parte hartu zuten ekitaldian. Esate baterako, Earra bertso-eskolak: koplak sorta ederra prestatu eta kantatu zuten. Horren ostean, Buruntzaldeako Gazte Sortzaileak egitasmoko hiru kide aritu ziren: Oihan eta Izar Agirretxe neba-arrebak eta Jon Mikel Azpiazu usurbildarra.

Musikatik, literaturara: Irakurle Txokoko kide Pablo Barriok testu bat prestatu, irakurri, eta egurrezko kutxan sartu zuen, Tximistarretara bertaratutakoen txalo artean. Ondoren, Kukuka eskolako bi dantzari taldek emanalditxo eskaini zuten.

Belarmeta mendi taldekoak arduratu ziren kutxa Hernanira eramateaz. Bi egun beranduago, egitasmoa helmugara iritsi zen, Segurako herrira.



'Bizi gira...kutxa bira!' egitasmoari harrera beroa egin diote herritar ugari. TXINTXARRI

'Ibilian ibilian' dinamika, Lasarte-Orian ere bai

Ibon Fernandez Iradi herritarraren egoeraren berri eman du Lasarte-Oriako Sarek, maiatzako 'Azken Ostiralean'

Txintxarri

Hilabeteroko azken ostiralero bezala, Sarek eta Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak deituta, hainbat herritar kalera irten ziren presoaren eskubideen alde, maiatzaren 28an. Besteak beste, Ibon Fernandez Iradi herritarraren egoeraren berri eman zuten.

Maiatzaren 25ean Parisera eramane zuten euroagindu bat medio, hutsune juridiko bat bete eta Espainian kondenatua izan dela jakinarazteko. Joxe Mari Agirretzek adierazi zuenez, orain

arte, halako tramiteak gertuko epaitegi batean egiten zituzten, Lannemezango kasuan, Pauen. Egun bakarreko joan-etorria da, 80 kilometrorra baitago; Paris, berriz, 800 kilometrorra. Fiskala "tematu" egin da "giza eskubideen eta osasunaren gainetik, bere boterea inposatu nahi izan du", salatu zuen Agirretzek. Presoak duen esklerosi anizkoitzari nola eragingo dion kezkatzen ditu gertukoak. Gutxienez hamar egun egingo ditu lasarteoriatarrak La Santen, "konfinamendu berri bat, bere osasun egoera dela-eta



Maiatzeko 'Azken Ostiralean' parte hartu zutenak, Kale Nagusia zeharkatzen. TXINTXARRI

ziegatik atera gabe". "Injustizia" honen aurrean, bai kanpotik bai barrutik "ahalegin guztiak" egin dituzte Parisera bidaia ekiditeko. Lannemezango euskal presoek enkartelada bat egin dute gertatutakoa salatzeke eta

Fernandez Iradirentzat baldintza duinak eskatzeko. Espetxeko zuzendaritzarekin bildu, eta lortu dute bere egoera kontuan hartzea bai bidaian bai La Santeko egonaldian. Agirretzek eskerrak eman dizkie haiei eta ahalegina

egin duten abokatuari, euskal delegazioari edota Bakearen Artisauari.

'Ibilian ibilian' dinamika

Salbuespeneko espetxe politika aldatzea lortzeko, mobilizatzen segitzea eta gizartearen inplikazioa "beharrezkotzat" jo dute. Hala, urriaren 23a arte luzatuko den *Ibilian ibilian*, *etxerako bidean* dinamika abian jarri du Sarek.

Lasarte-Orian bi ekintza egingo dituzte ekainean zehar. Hilaren 8an, asteartez, *Euskal presoak: nondik gatoz, non gaude eta nora goaz?* hitzaldia eskainiko du Inaxio Oiarzabal Sareko koordinatzaileak, 18:30ean, osasun zentroko 2. solairuan. Ekainaren 17an, ostegunarekin, *Izadi gurasoekin* *etxera* dokumentala proiektatuko dute eta solasaldia egingo dute gero, 18:30ean, Mercero aretoan.

Elorrietaren ahotsa eta musika, herrian berriro

Eñaut Elorrietak bakarkako bigarren diskoa aurkeztu du zuzenekoan: 'Irteera argiak'. Ibilbideko beste abesti batzuekin atondutako errepertorioa ekarri du musikari bizkaitarrak Manuel Lekuona kultur etxera; lasarteoriarrek bete egin dute agertokia

Txintxarri

Aretoa beteta topatu zuen Eñaut Elorrietak Manuel Lekuona kultur etxeko agertokira irteetan, maiatzaren 28an. 2019 urte amaieran kaleratu zuen *Irteera argiak* lana, baina hura zuzenean entzuteko aukera orain izan dute lasarteoriarrek. Musikaria ez zen bakarrik egon eszenario gainean; alboan izan zituen Fernando Neira baxu jotzailea, Ruben Caballero gitarrista, Borja Barrueta bateria eta Maite Larburu biolinista.

Bakarkako bigarren diskoa du hau, estreinakoa izan zen *Deserriko kantak* kaleratu eta sei urte geroago argitaratua. Lan berria "pertsonalagoa" dela argitu zuen eta azken urteotan gertatutakoa islatu nahi izan du bertan. Horren adibide, esaterako, duela bost urte hildako aitari eskainitako *Zaldia eta behelainoa* kanta. Hura aurkeztean azaldu zuenez, urteotan beste abesti batzuk erditu ditu, honekin "gustura gelditu arte".

Elorrietak berak sortutakoekin batera, Uxue Alberdik idatzitakoak badira baita Jose Luis Otamendi, Bernardo Atxaga edota Joseba Sarrionandiaren idatzi musikatu batzuk ere. "Itzuliko ez zela uste zuen" azken



Eñaut Elorrieta, maiatzaren 28an eskaini zuen kontzertuan. TXINTXARRI

honi eskaini dio bere pieza batean oinarritutako *Geografia*, aurreko lanean jasoa.

Une batez, Tren luzea, Ez dago ezer, Eguzki argitan... bi diskoetako abestiak eta beste batzuk uztartzen joan da emanaldian, argiak piztu eta irteerara bidean jartzeko ordua heldu den arte.

Azkenekoz herrian, 2016an

Bost urte dira Eñaut Elorrieta azkenekoz Lasarte-Oriara etorri zenetik emanaldi bat eskaintzera. Orduko horretan, aldiz, ez zen

bakarlari gisa aritu, Ken Zazpi taldearekin baizik. Talde gernikarra Okendo plazako oholtzara igo zen 2016. urteko San Pedro Jaietan. *Phoenicoperus* diskoa aurkeztearekin batera, taldearen errepertorioko abesti ezagunenak partekatu zituzten enparantza bete zuten ikus-entzuleekin.

Duela bost urteko hori ez da Ken Zazpik gure herrian eskaini duen emanaldi bakarra. Zortzi urte lehenago ere izan ziren hemen, 2008ko sanpedroetan.

Herriko pertsona maitagarriak omentzeko ekimena martxan

San Pedro Jairik egongo ez den arren, Ttakun KEK eta Udalak Gure Patxintxiak sariak emango dituzte

Txintxarri

Aurtengo San Pedro Jaiak ofizialki ospatuko ez diren arren, Gure Patxintxiak saria eman nahi dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, aurtengo ekainean. 65 urtetik gorako lasarteoriar maitagarri eta goxoenak omentzen jarraitzeak merezi duela uste dute bi entitate horiek.

Horrela, ekainaren 4tik 15era bitarte hautagaiak jasotzeko epea zabalduko dutela iragarri dute. Hortaz, pertsona maitagarri eta goxoren bat proposatu nahiko

bazenute, holako helbidera idatzi dezakezue: kultura@ttakun.eus Horrez gain, Ttakun Kultur Elkarteko sare sozialetara ere bidali dezakezue proposamena. edo bulegoko postontziara bota.

Behin hautagaiak aurkezteko epea amaituta, ekainaren 18tik 23ra irekiko da bozkak emateko aukera, eta, horretarako, ondorengo helbidea erabili ahal izango duzue: labur.eus/patxintxisariak2021.

Animatu eta bidali zuen proposamenak! Gora Gure Patxintxiak!



TXINTXARRI

Ezinezkoa, posible

Posible denaren eta ez denaren arteko mugak lausotu ditu Hodei Magoak kultur etxean egindako *Ezinezkoaren logika* ikuskizunean. Magia eta umorea erabilia, haurrak eta helduak harritzea lortu du bere trikimailuekin. Magoak ikus-entzuleei esplikatu die ezinezkoa errealitate bihurtzeko, eta hein batean, hala izan da.

Gure Patxintxiak 2021

- Zuretzat, nor da pertsonarik goxo eta maitagarriena?

.....
- Nola jarri gaitzke berarekin harremanetan? (kontaktua)

Zure izena eta kontaktua:.....

itsatsi zure
hautagaiaren
argazkia



Patxintxi sariak 2021

65 urtetik gorako
pertsona maitagarri eta goxoenak

**Bidali zure hautagaiak
ekainaren 15era arte**

kultura@ttakun.eus-era |
Ttakuneko sare sozialetara |
Bulegoko postontzira

Ekainaren 18tik 23ra eman zure bozka
www.labur.eus/patxintxisariak2021

Iñigo Gonzalez Sarobe

Leire Mayo Arteagak *El Conquistador del Caribe* telesailaren XVII. edizioan parte hartu du. Final handia uztaile hasieran izango da, eta lehiakideak lehenago elkarrizketatzea ez da seinale ona izaten, esan nahi duelako haiek nahi baino lehenago kanporatuak izan direla, baina herritarrak hemeretzi ataletan zehar egin duena ez dute azkar auztuko programaren jarraitzaileek, ezta berak ere. Julian Iantzi aurkezleak ezizena eta guzti jarri dio: *La guerrera de Lasarte* (Lasarteko gerlaria). Dominikar Errepublikan ez du ikurrina altxatzerik izango, baina saioaren zaleak konkistatu ditu. **Zu kanporatua izan eta hurrengo saioan iragarri dute azken fasea hasiko dela, unifikazioa. Triste zaude horraino iritsi ez izanagatik?**

Unifikazioaren atarian geratu naiz, ala hor utzi naute? Uste dut bigarren faseko taldekideek [Cacatek] egin didatena ez dela normala, behin eta berriro duelura bidali, nik proba gainditu, baina hurrengoan ere berriz ni nominatzea, behin ere joan ez diren taldekide batzuk egonda, Beko eta Yanci esate baterako... Begiz jo ninduten; errazena ni bozkatzea zen. Haien erruz geratu naiz azken fasean lehiazteko aukerarik gabe, eta ez diet bizi osoan barkatuko. Pasa egin ziren nirekin.

Erakusten ari zinen erakutsita ere, taldekideek ez zuten iritiz aldatu, eta errutina hau ohiko bilakatu zen: talde-jokoa galdu, asanblea egin, eta taldearen nominazioa, zuretzat. Azken hiru dueluak segidan burutu behar izan zenituen. Egoera gogorra, ezta? Bai fisikoki, bai mentalki.

Azkenean, joko bat da, eta duelura bidaltzen bazaituzte, bazoaz, ez duzu besterik, baina triste nago, ez nien ezer txarrik egin. Pixka bat damutzen naiz hirugarren bakarkako proba egin eta gero taldekideekin jarrera gogortu ez izanaz: 'Laugarren duelu batera bidaliko nauzue, benetan?', esan ez izanaz. Eneko [Van Horenbeke] kapitainari laguntza eskatzea ere, besteak konkentzitzen saiatzeko... Baina ni ez naiz eskean joatekoa. Kosta ala kosta bota nahi ninduten, ba egoera horri aurre egin nion.

Unifikaziora iritsiz gero, zure egoera desberdina izan zitekeela uste duzu? Talde-dinamika hori desagertu egingo da azken fasean, aliantza berriak egiteko aukera irekiko da...

"Programan egin dudan ibilbideaz oso harro nago"

LEIRE MAYOZ ARTEAGA 'EL CONQUISTADOR DEL CARIBE' SAIOKO LEHIAKIDEA Dominikar Errepublikan bizitakoa "beti" gogoratuko du herritarrak. Bigarren aldiz lehiazteko ez litzateke joango; kapitain lanak egitera, ordea, animatuko litzateke



Lau duelu lehiatu, eta hiru gainditu ditu lasarteoriatarrek aurtengo edizioan. EITB

Urruti iristeko aukerekin ikusten nintzen azken fasean, iruditzen zait gaitasuna daukadala jendearekin harremantzeko, lagunak egiteko, abenturako lehen proban jada erakutsi nuen ongi moldatu nintekeela, nire taldeko lehena izan nintzelako azken txanpara iristen... Cuyaya taldekoeak, agian, kontuan izango zuten Cacatek egin zidatena, nork daki. Horraino iritsi ez izanaren penaz geratu naiz. Gainera, atarian geratu garenak Herrantxi [Julen Herran] eta biok izan gara. Dominikar Errepublikan egin dudana lagun onena izan da Herrantxi.

Final handia uztaile hasieran izango da. Nork irabaztea nahi duzu?

Nire taldekide Aitorrek irabaztea gustatuko litzaidake, bera da nire favoritoa. Ederra litzateke egoera hau: finalaren egunean, biok txapela jantzita, gainontzeko Cacaten aurrean. Berea, ikurrina altxatu izanagatik, eta nirea, zaleen lehiakide gogokoena izateagatik.

Sari horren bila zoaz, beraz; ikus-entzuleen gogokoena izatera.

Horren bila noa buru-belarri. Gehiegi pentsatzen dut sari horretan, badakit, baina... Zenbaiti izorratu egingo lieke lehiakide gogoekona ni izateak, eta gainera,

iruditzen zait badela modu bat erakusteko ikus-entzuleek zein jokabideri ematen dioten balioa.

Irabazi dezakedala uste dut. Nire alde bozkatu nahi dutenei oharra egin nahi diet: egunero bozkatu behar dute. Helbidea hau da: <https://www.eitb.eus/es/television/programas/el-conquistador/favorito/>.

Zein izan da zure jokabidea *El Conquistador del Caribe* saioan?

Etxekoek esaten zidaten saiatzeko gehiegi ez nabarmentzen, isilik egoten, baina nik oso argi nuen ez nuela paperik antzeztuko han, nintzen bezalakoa izango nintzela, %100 naturala; horrela ez jokatzeko, etxean geratuko nintzen. Zentzu horretan, ez dut ulertu Iker Salinasen jarrera, adibidez: 'Nik ez dizkiet telebista-minutuak emango'. Ikusleek ongi pasa nahi dute zurekin, ezagutu nahi zaituzte benetan nolakoak zaren...

Argi dago mugak ere jarri behar izan ditudala, bizitzan hori egin behar izaten dugu; azkar sutzen naiz eta lotsagabea ere banaiz, gauza asko ezin ditut niretzako gorde eta esan egin behar ditut, baina, egia da ez naizela asko moztu, kamerak gu grabatzera etortzen zirenean batez ere; Cacaten taldean nengoenean, barruan neramana askatzen nuen, taldean ez baineukan lagun minik, nolabait esatearren. Langile taldea harritu egiten zen, bizitzen ari nintzena bizituta ere, bromak egiten nizkielako.

Cacaten taldeko kide guztiekin eraman zara horren gaizki?

Taldeko mutilekin ongi moldatu nintzen elkarbizitzan; nahiz eta gero duela gutxi joateko nominatu, ulertzen nuen. Baina neskekin, Andrearekin, Joanarekin eta Txintirekin... Nahiz eta kanpalekuan elkarren ondoan egon, ez genuen elkarrekin hitz egiten, eta bederatzi egunez egon nintzen haiekin. Dueluak gainditu eta gero egiten zizkidaten ongi etorriak ere... Programan, hemendik aurrera egiten dutena ikusteko irrikitan nago, horren onak eta indartsuak badira, erakutsi dezatela. Hiru horiei [Andreari, Joanari eta Txintiri] mania hartu diet, onartzen dut. Ahulena nintzela esaten zuten, eta fisikoari erreparatuta, hala eman nezakeen agian, baina...

Fisikoa garrantzitsua da, baina konkistadore izateko ezaugarri gehiago ere behar dira, ezta? Zer da benetan indartsua izatea?

Fisikoa garrantzitsua da, argi dago, baina buruz gogorra izan behar duzu. Horri lotuta, Andreak, adibidez, oso indartsua dirudi, baina mentalki ahula da, benetan erakutsi behar izan duenean, ez du maila eman. Faktore gehiago sartzen dira jokoan. Proba eta duela fisikoa soilik izango balute kontuan, ez nintzen aurkeztu ere egingo; hori baino gehiago da *Conquis*.

Hemeretzigarren atalean joan behar izan duzu Dominikar Errepublikatik. Ordura arte egindakoa, bigarren fasekoa batez ere, oihartzuna izaten ari da. Zenbaterainokoa? Nola daramazu hori guztia?

Oso mediatikoa da *El Conquistador del Caribe*. Kontuz ibili behar duzu horrekin, egiten duzunak izan dezakeen oihartzunarekin. Programan zehar, momentu batzuetan, sutan nengoenean, kontziente nintzen gero ikusi egingo zela, eta lasaitzen saiatzen nintzen. Egia da, baita ere, 30 urterekin joan naizela saiora, helduago. 20 izan banitu, ai ama: Juliani sekulakoak esango nizkion, janaria lapurtzen saiatuko nintzen... Ederrak egingo nituen, ziur asko. Dena den, eztanda hau ez nuen espero, ikaragarria izaten ari da: telefono mugikorra sutan daukat, aurrekoan Azpeitiara joan nintzen eta kaletik ezin nuen ibili ere egin...

Programan aurrera egiten saiatzeko, denak balio du?

Estrategia, estrategia da, baina, kosta ala kosta aurrera egite



Ekainaren 1ean elkartu zen Leire Mayo Arteaga TXINTXARRI aldizkariarekin. Hurrengo egunean, bigarrenaz joan zen debatera. TXINTXARRI

hori? Begira haiek nola geratzen ari diren ikus-entzuleen aurrean, gertukoaren aurrean... Ez naiz finaleraino iritsiko, baina nire ibilbidearekin geratzen naiz, hori oso argi dut. Egia da biktimaren papera bizitzea tokatu zaidala bigarren fase horretan. Talde horretan, bi beharrea [Aitor eta Leire], Corocote gehiago izan bagina, bost edo sei, gaiztoaren rol hori nik izango nukeen orain agian. Ez nintzateke iritsiko niri egin didaten hori egitera beste norbaiti, baina saiatuko nintzen urdin izandako horiek salbatzen, horretarako estrategiak egiten. **Corocoteen taldea aipatu duzu. Zer moduzkoa izan zen lehen fasea?**

Esango nuke talde-jokoak txukun egin genituela, maila ona erakutsi genuela; friki itxura ez genuen eman, batek baino gehiagok hori irudikatu zezakeen arren. Corocotea izango naiz betirako, urdina. Kolore hori ez zitzaidan gustatzen lehen; orain... Dena urdin kolorekoa erosten dut! **Beste modu batera, baina ederki sufritu zenuen lehen fasean ere.**

Joko gutxi irabazi genituen, kanpaleku pobrera edo oso pobrera joan ginen askotan; ez genuen behar bezala jaten; zomorroek etengabe ziztatzeko gintuztenez, ezin genuen arropa kendu, baina beroa egiten zuen eta izerditan geunden; eta euria ere egiten zuen. Horrek guztiak estutu egin zuen Corocoteen arteko harremana, gauero egiten nuen lo norbaiti helduta, istorioak kontatzen genituen... Horrek ematen zidan jaten. Cacatekin, ordea, horrelako

ezer ez. Txanponaren bi aldeak bizitu ditut abenturan: taldeko liderretako bat izatetik, behin eta berriro nominatua izatera. Hirugarren aldea bizitzea falta izan zait, *unifikazioarena*.

Bi fase, eta bi kapitain: Seleta aurrena, eta Eneko, gero. Zer moduz moldatu zara haiekin?

Seleta hil arte jarraitzen genuen; Corocoteak bezalakoa zen, ero

puntu horrekin, baina den-dena ematen zuen. Enekok, Cacaten parte izateko aukeratu ninduen, pozik nengoen; gero, damutu egin naiz; harropuzta iruditu zait.

Datorren urtean berriz lehiatzera joanda, agian, bizitu ahalko zenuke azken fase hori... Proposatuko balizute, animatuko zinateke?

Lehiakide moduan, ez, ezta pentsatu ere. Aurtengo edizioan egin dudana ez dut gaintutuko, oso harro nago egin dudanarekin, ez zait arantzarik sartuta geratu. Parte hartzera, esan bezala, ez nintzateke joango, baina kapitain lanak egitera, bai; nire burua ikusiko nuke. Iruditzen zait badakidala antzematen nor doan benetan urruti iristen saiatzera, nor doan protagonismo bila...

Programa ikusten ari zara?

Bai, ikusten ari naiz. Maiatzaren 24ko kapitulua, adibidez, arraroa egin zitzaidan, hemeretzi atal eta gero, ni dagoeneko ez nengoelako. Astelehenero, urduri jartzen nintzen: 'Ea zer esaten dudan gaur...', pentsatzen nuen, bizitako guztiaz ez bainaiz gogoratzen. Programa amaitzeko gogoa daukat hein batean, iritsi dadila finala.

Zu kanporatua izan eta hurrengo talde-jokoa irabazi zuten Cacatek, hiru jarraian galdu eta gero. Etxera joandako taldekideei dedikatu zieten garaipena, Joanak batez ere. Nola hartu zenuen?

Telebistaren aurrean nengoen, eta sutan jarri nintzen: 'Orain, hau? Eta zuekin egon naizenean?'. Haien irudia garbitzen saiatzeko egiten dituzte horrelakoak, audientziaren aurrean ongi

geratzen saiatzeko, badakitelako nola jokatu zuten nirekin han. Egurra jasotzen ari dira orain.

Lehiakideak, kanporatuak izan ostean, debatera joaten dira. Nire lehen aldia ongi joan zela esango nuke, bizitzea tokatu zitzaidanagatik. Ea Andrea, Joana, Txinti...doazenean zer gertatzen den. Saioaren ostean, Cacata izandako zenbait taldekidek WhatsApp mezuak bidali zizkidaten: 'Pasa egin zara', esan zidaten. Politikoki zuzena izan nintekeen, eta audientzia engainatu, baina ez; beraiek ez ziren nirekin horrela portatu han, ba ni orain ere ez. Zer egingo diet, haiei mesede, eta isilik geratu, edo haien irudia garbitzen saiatu? Esandakoak esanda ere, pozoi gehiago bota nezakeen oraindik, baina grabazioetan ikusi ez dena ez dut zabaldu.

Ikus-entzule ugari zure alde daude, eta keinu ugari jaso dituzu.

Abentura hasi aurretik, beldurra neukan, egin dudaren orde, bigarren egunean joan nintekeelako etxera, edo maila txarra erakutsi, edo taldekideren batekin harreman txarra izan eta beste irudi bat eman zaleen aurrean, baina, positiboki ikusi naute, eta horrekin oso pozik nago. Debatean, adibidez, Parisko zale batek bidalitako eskutitza erakutsi zidaten, izugarria izan zen. Horrekin, irabazle sentitzen naiz. Esan bezala, horretan asko lagundu du bizitzea tokatu zaidanak; alderantziz izan balitz, jakin nahiko nuke zer nolako babesa jasoko ote nuen.

Herrian nabaritu duzu aldaketarik? Ertanda ez da horren handia izan Lasarte-Orian, baina esango nuke aukera izan dutela ni zertxobait gehiago ezagutzeko, eta jasotzen ari naizena positiboa izaten ari da. Pozik nago.

Gertukoek nola bizitu dute zure abentura? Zer esan dizute?

Etxekoak oso pozik daude: ama, familia... Arteagatarrak diren aldekoek esan didate listoa oso altu jarri dudala.

Zuk egindakoaren zati bat, hauxe: lau duelu egin, eta hiru gaintutu. Zein izan da gogorra?

Kupelena, egin nuen aurrenekoa, zalantzarik gabe. Bi ordu eta erdiz lehiatu ginen Maialen, Andrea eta hirurok. Andreari irabazteak sekulako indarra eman zidan hurrengo asteetarako, egia esan. Enborrari kolpeak ematearena eta sokena azkarrago egin genituen, 30-40 minutu.

Dueluak hain-hain ondo ere ez ditut egin, hori egia da, ez naiz besteen gainetik nabarmendu, haien antzera aritu naiz, baina hiru gaintutu ditut, eta horietatik bi, irabazi. Metro eta erdi pasatxo neurtzen dut, 50 kilo pisatu... Indartsua nor den eta nor ez, oso erlatiboa da, probaren arabera. Argi nuen hobeto molda nintekeela dueluetan, talde-jokoetan baino. **Erakutsi duzuna ikusita, prestatuta joango zinen abenturara.**

Ba, egia esan, ez. Uztailean egin nuen kastina eta abuztu amaieran deitu ninduten. Irailean oporrak nituen, eta bi astez joan nintzen kanpora... Sokak, adibidez, probatu nituen, Lasarte-Oriako 74 urteko gizon batekin, Donostiako Belodromoan. Ongi ibiliko nintzela esan zidan. Hala ere, jakin nuenean beste herrikide bat zihoala hara, Arruti, uste nuen ni baino hobe ibiliko zela: 22 urteko mutila, kirolaria, baina isila izateko estrategia eraman zuen, eta ikusi nola atera zitzaion... [Lehen kaleratua izan zen, taldekideen erabakiz; antolakuntzak ez zion duelua egiteko aukerarik eman].

Elikadurari dagokionez, egia da hilabete eta erdi inguru pasatzen duela gozokiek eta duten azukrea jan gabe. Gainontzean, asko jan nuen, baina osasuntsu: orain baino lau kilo gehiagorekin ekin nion abenturari. Gero, ordea, berehala geratu nintzen hezur eta azal; hemeretzi egunetan hiru aldiz jan nituen jaki beroak plater batean, kanpaleku aberatsean.

Zergatik animatu zinen programan parte hartzera?

Betidanik jarraitu izan dut, baina ez nuen nire burua han ikusten: 'Gogorregia da, fisikoki oso ongi prestatu behar dut...'. Hala ere, duela bi urteko kastinera aurkeztu nintzen, baina ez nintzen ni neu izan: lotsatuta nengoen. Errepikatu egin nuen iaz, oso prestatuta ez nengoen arren, baina kastinetik atera eta nire buruari esan nion: 'Barruan nago'. Hori sentitu nuen. Uztailean, eta arratsalde horretan Zurriola hondartzara joan nintzen. Buruari bueltaka hasi nintzen: 'Baina zer egin dut? Non sartu naiz?'. Abuztuan deitu ninduten; izugarri motibatuta nintzen.

Horren gogorra al da esperientzia? Bai. Benetan, oso gogorra da. Probatu zure etxean, eta esango didazu. Iruditzen zait tranparik gabe erakusten dutela guk bizitu duguna. Bizitzarako, lezio ugari irakatsi dizkit abenturak.





2019. urteko ekainaren 23an jaio zen Mikelen haur Izei, subrogazio bidezko haurdunaldi bidez. MIKEL OLAIZ GARMENDIA

Aita eta "familia zabal" bat du Izeik

MIKEL OLAIZ GARMENDIA AITA BAKARRA

Duela bi urte jaio zen Mikel Olaiz Garmendia lasarteoriatarren haur Izei. Subrogazio bidezko haurdunaldiaren bitartez izan du haurra, AEBetan. Ezjakintasunetik abiatu zuen bidearen berri eman dio TXINTXARRI-ri; gurasotasuna nola bizi duen kontatu du

Maddi Zaldua

Beti egon izan da haurrengandik "oso gertu" Mikel Olaiz Garmendia (Lasarte-Oria, 1985), herritarra. Ttakun Kultur Elkarteko eta beste hainbat aisialdi taldeetako udalekuetako gazteekin egin ditu makina bat urte, eta senide dituen iloba gaztetxoekin ere bai: "Haurrekin beti izan dut harremana; beti izan dut gustuko". Gaztetatik haurrekin elkarbizitzeaz gain, hezkuntzarekiko, pedagogiarekiko kezka baduela ere kontatu dio TXINTXARRI-ri: "Gizarte honetako baloreen inguruan badut kezka bat; beti ikusi izan naiz aita baten paperean, nahiz eta ez dudan betidanik argi izan".

Urteek aurrera egin ahal hasi zen aita izatearen ideia lantzen. Aita izan nahi zuen edo ez galdetu zion lehenik bere buruari, eta, horrekin batera, egun gizarteak

finkatzen dituen eskemetako ideiak ere birplanteatu zituen: "Badirudi egoera, bikote eta lan egonkor bat, etxebizitza bat eta lan-baldintza onak badituzu, orduan eduki dezakezula haur bat". Hori birplanteatu, eta bere kasuan guzti hori ezinbestekoa zen aztertu, eta, ondorio bat atera zuen: bere kasuan baldintza horiek guztiak betetzea ez zela beharrezkoa: "Niretzat indar gehiago zuen aita izan nahi nuen edo ez ikusteak, eta nahiko banu, ikusten hasi beharko nintzela ea posible nuen edo ez". Eta hausnarketa horri ere atera zizkion bi ondorio; lehena, aita izan nahi zuela, eta, bigarrena, berriz, orduko momentu pertsonala polita zela aitatasunari ekiteko.

Gauzak horrela, haur bat izateko aukera ezberdinak begiratzen hasi zen. Aita bakarria izango zenez, hori ahalbideetako

zioten aukerak aztertzen, adopzioaren aukera aztertu zuen lehenik. Konturatu zen, ordea, aukera horrekin aurrera egitea zaila dela: "Prozesu luzea da, eta, bakarrik dagoen pertsona batentzat, bete behar diren baldintzengatik, ia ezinezkoa da. Ez dago, gainera, erabateko ziurtasunik; bidean gauza asko gerta daitezke". Horrela, ziurgabetasunez betetako aukera ikusten zuenez, alde batera uzteko erabakia hartu zuen: "Ez nuen uste lortuko nuenik".

Haurra harreraren hartzeko aukera aztertu zuen gero. Kasu horretan, bere baldintza

"GIZARTEAK, ORAINDIK ERE, AMA BAKARREKO FAMILIAK SOILIK IRUDIKATZEN DITU"



Aita bakarra. Maiatzaren 15eko Familiaren Nazioarteko Eguna baliatuz, familia eredu ezberdinen gaineko erreportaje sorta argitaratzen ari da TXINTXARRI. Aste honetan Olaiz Garmendia familiaren testigantza bildu dugu.

personalekin prozesuan aurrera egiteko onartuko lituzketen baloratu baino, ikusi zuen berak ez zituela haur bat harreraren hartzeko baldintzak betetzen: "Harrera haur bat jasotzeko prest egon behar zara, testuinguru egoki eta goxo bat eduki behar duzula, denbora bat eskaintzeko modukoa, eta, aita izateko erabakia hartu nuen garai hartan, aita bakarria izanda, ezingo niola harreraren hartuko nuen haurrari behar bezalako harrera eman".

Aukera hori ere alde batera utzita, hirugarrena aztertzen hasi zen: subrogazio bidezko haurdunaldiarena. Aitortu du ia erabateko "ezezagutzatik eta aurreiritzi askorekin" abiatu zela aukera hori aztertzeri: "Ez nuen prozesua ezagutzen, ez nekien zer suposatzen zuen, ezta emakumearen ikuspegitik prozesuak zer esan nahi zuen eta hori guztia argitzeko informazio bila hasi nintzen".

Bere inguru gertukoan ez zuen, ordea, subrogazio bidezko haurdunaldi bat bizitu zuenik, eta, nolabait hastearren, Xabier Madariaga kazetariarekin harremanetan jartzea erabaki zuen -Madariaga eta bere bikotekideak bi seme-alaba izan dituzte, subrogazio bidezko haurdunaldi baten laguntzaz-. "Kokapen on bat eman zidan. Azaldu zidan prozesuak zer suposatzen zuen, informazio gehigarria non eskuratu nezaken, beraiek nola egin zuten, eta abar, eta, hortik abiatuta hasi nintzen gaian gehiago sakontzen".

Emakume gestantearekin kezka

Subrogazio bidezko haurdunaldi prozesuak kezka handirik sortzen bazion Mikeli, emakume gestantearen papera zen: "Nire burua feministatzat daukat, eta, prozesua nire balioekin bat etortzea bermatu nahi nuen; beldur handia ematen zidan esplotazio egoera bat izateak".

Azterketa egiten hasi, eta, konturatu zen prozesu bera "oso ezberdina" zela herrialdearen

arabera, eta, hortaz, prozesua bera orokorki baloratzea zaila dela. Kontatu du ekialdeko herrialde askotan "barbaridade hutsak" egiten direla, eta ez direla emakumearen nahiak eta eskubideak errespetatzen. Beste hainbat herrialdeetan, berriz, osasun publikoak bideratzen duela prozesua, baina, gehienetan, herrialdeko herritarrei zuzenduta egoten direla. Orduan, bere egoerak Kanada edo AEBetako prozesuekin bat egin zezakeela ikusi zuen, nahiz eta azken herrialde horrek eskaintzen zuen, bere ustez, berme gehien: "30 urte daramatzate gai horrekin, eta, legez arautua dago goitik behera".

Zehaztu du, AEBetan marko legal "ozo zehatz" batean barnebiltzen dela prozesua. Azaldu du haurra gestatu nahi duen emakumeak, berak erakutsi behar duela haur bat gestatzeko borondatea. Horrekin batera, lehenagotik seme edo alaba bat gutxienez edukitzea beharrezkoa dela, eta azterketa psikologiko bat ere egiten zaiola, bere kabuz erabakia hartzea oztokatzen dion gaixotasunik ez duela ziurtatzeko. Ekonomikoki ezin du behar egoera batean egon, ezin ditu dirulaguntzak jaso, eta bermatuta egon behar du diruak ezin duela izan prozesuan parte hartzeko helburua.

Informazio hori eskuratuta, prozesuarekiko beste ikuspuntu bat jaso zuen Mikelek: "Iruditu daiteke zilegi edo ez, baina, behintzat, arauak jartzen dute marko bat, non, emakumeak, gutxienez, baduen erabakitze eskubide bat, arautua dena, eta zehatza". Eta horrelaxe egin zuen subrogazio bidezko gestazioaren alde: "Argi ikusi nuen, gestazio bidez izaten banintzen aita, AEBetan izango zela edo bestela ez nintzela izango". Azaldu du baita ere, nola, besteak beste, prozesua martxan jartzeko bi aldeek kontratu bat sinatu behar duten, eta, behin haurra jaiota, prozesua

epaiketa batekin ixten den, non, bi aldeek hasierako kontratuan sinatu dutena baieztatu behar duten.

Prozesuaren konplexutasuna

Herritarrak azaldu du badagoela prozesua "bere kabuz" egiten duenik, baina, jakinarazi du badaudela prozesua hasieratik amaierara gidatzen duten agentziak ere: "Aholkatzen dizute momentu bakoitzean zer egin behar duzun, lehen unetik amaierara arte". Berak aukera gidatuaren alde egin zuen, "modu kontrolatua" eta "ahalik eta ondoen" egin nahi zuelako guztia.

Agentzia horiengandik jasotako informazioarekin kokatuta, aurrera egin zezakeela ikusi zuen, baina, baiezkora eman aurretik, ezinbestekoa izan zitzaion etxeko konplizitatea izatea: "Aita bakarra izan nahi nuela ikusten nuen arren, niretzat garrantzitsua zen, haurrak lehenengo urteetan behintzat ingurune erosoago bat izatea, batez ere zaintzari begira. Ardura batzuk egongo zirela banekien, eta laguntza behar nuela, hortaz, prozesuarekin hasi aurretik, etxekoei eman nien nire gogoaren berri. Ilusio handiz jaso zuten eta, orduan erabaki nuen aurrera egitea".

Dena "oso azkar"

Bizitza egokitu zaion prozesuan "dena oso azkar" joan dela azaldu du herritarrak, eta, gaineratu du, hori ez dela ohikoa izaten; "kasualitate hutsa" izan dela.

Kontatu du bere haur Izeiren gestantearekin, Jaide HARRISEKIN, "oso harreman ona" izan duela hasieratik, bataren eta bestearen kezka eta nahiek bat egin dutelako lehen momentutik. Elkar ezagutu zuten unetik "oso argi" ikusi zuen Jaide HARRISEKIN prozesuaren parte izan nahi zuela, eta kezkak desagertzen joan ziren: "Ikusi zuen, ni momentu hartan mutil bakarra izanik, ezin nintzela aita izan, eta nire testuingurua, baloreak, eta abar zein ziren ikusita, baiezkora eman zion prozesuari".

2019ko ekainaren 23an jaio zen Izei, baino jaio baino denbora bat lehenago bidaiatu zuen Mikelek, amak lagunduta, Idahora. Han, jaiotza aurreko, erditze, eta erditze ondorengo momentuak elkarbanatu zituzten gestantearekin, eta, gaur-gaurkoz

Gestantea bera denean aukera horren alde zergatik egin duen kontatzen duena

JAIDE HARRIS GESTANTEA

Gestante izatea erabaki zuenean, hemeretzi urte zituen Jaide HARRISEKIN -Izeiren gestantea izan da-. Haurdunaldi eta erditze "zoragarri" batzuen ondorioz jaiotako haur baten ama bakarra zen orduan. Bere haurraren zaintzaileak etorkizunean bera eta bere senarrarentzat haur bat izango zuten galdetu zionean hasi zen aukeraz pentsatzen. Orditutik hona, hiru subrogazio bidezko haurdunaldiren gestantea izan da.

Gestante izateko bere erabakiak ez du ekonomiarekin inolako zerikusirik izan, eta azaldu du gestante izateko bere arrazoi bakarra zein izan den: "Nire amaren aldeko familian 25 urte bete eta gero erreprodukzio-organuak mantentzen dituen emakume bakarra naiz. Minbizi kasuen ondorioz, goiz galdu zituzten euren erreprodukzio organoak, eta galera horiek eragin dieten minaren jakitun izanik, orditutik erabaki nuen nik nuen aukera

beraiek ere eduki zezaten lagundu nahi niela: umeak izaten".

Mundura beste bizitza bat ekartzean, "edozein amak" senti dezakeen "ilusio bera" sentitzen du subrogazio bidezko haurdunaldietan. Horrela azaldu du: "Nire burua zaintzeko arreta jartzen dut, haurra ondo garatzen ari den ziurtatzeaz eta erditze segurua bat izango dudala ziurtatzeaz arduratzen naiz". Azaldu du baita ere, kezka umeak ere sortzen direla, baina horrelako momentutan jainkoarengan jartzen duela bere konfiantza: "Badakit nire osasuna eta zaintza bere esku daudela eta berak bere moduan egingo duela".

Gestante izateko baldintzak

Subrogazio bidezko haurdunaldi bateko gestante izateko zerbait baldintza bete behar dituztela azaldu du Mikelek erreportaje honetan, baina, Jaide HARRISEKIN ere azpimarratu ditu horietako batzuk: "Pisu osasuntsu bat

eta 43 urte baino gutxiago edukitzea beharrezkoa da. Gestazioaren aurretik, gutxienez seme edo alaba bat edukitzea ere baldintza bat da, eta haurdunaldi osasuntsuak izatea ere bai. Familia ekonomikoki mantentzeko egoera egonkorra izatea ere eskatzen da, gestazioak eman dezakeen laguntza kontuan izan gabe". Baldintza horiek guztiak betetzen ditu berak.

Azaldu du familia bakoitza ezberdina dela, eta haurdunaldien jarraipena horien arabera izaten dela. Kontatu du, adibidez, Izeiren gestazioa beste batzuekin alderatuta "intimoagoa" izan dela: "Hilabeteroko medikubisiten berri izaten zuten, eta ultrasoinuen bidez ateratako argazkiak ere bidaltzen nizkion Mikeli".

Haurra erditu eta gero

Jaide HARRISEKIN "oso argi" du subrogazio bidez gestatzen dituen haurrak ez direla bereak: "Haurrak gestatzea oso gustuko

duan arren, pozik sentitzen naiz dagoeneko lau seme-alabaren ama naizelako; mentalki ez nuen eurez arduratu behar nintzen haur gehiagoren ama izan nahi".

Horrela, gaur egun harremana mantentzen du berak gestatutako haurren familiekin: "Pozgarria da familia horien argazkiak jasotzea, eta eurak denak elkarrekin hazten ari direla ikustea".

Munduan subrogazioa arautzeko dauden modelo ezberdinen inguruan galdetuta, azaldu du horietatik guztietatik ez daukala berak gogokoenik, prozesu bakoitza "oso ezberdina" delako familiaren eta gestatzailearen arabera.

Kontatu du baita ere AEBetan subrogazio bidezko haurdunaldiak ohikoak izan daitezkeen arren, badaudela gestatutako haur bati "uko" egitea imajinatu ezin duten emakumeak, eta baita ere euren gorputzak horrelako prozesu baten parte izatea onartuko ez luketenak ere.

ere, gutxienez, astero izaten dute elkarren berri: "Harremanetan jarraitzen dugu, baina, denok argi izanda bakoitzaren papera zein den".

Oztopoak bidean

Izei jaio zenetik hainbat oztopori egin behar izan dio aurre Mikelek. Kontatu du nola, oraindik ere gizarteak ama bakarrek familiak soilik irudikatzen jarraitzen duen: "Aita bakarren kasuan, ama hilda dagoela interpretatzen da". Ez du gehiegi harritzen egoera horrek, ordea: "Errealitate bat da oso gutxi garelako aita bakarrek garenak, eta hortaz kontziente izan behar dugu".

Argi ikusten du gizarteak ez duela irudikatzen amarik ez duen haur bat: "Batez ere, hasierako hilabeteetan, gehiegizkoa izan zen. Behin, Izei aitonaekin zihoala, negarrez ari zen, eta emakume bat gerturatu zitzaion, titia emango ziola eskainiz. Eta, beste behin

ere, Izeirekin trenean nindoala, kolikoekin gaizki pasatzen ari zen momentu batean, emakume batek *traemelo que yo ya se lo que hay que hacer* esan zidan. Jendearen buruan, ume batek ama behar duela ikusi dut askotan".

Administrazioan ere gaintitu behar izan ditu traba bat baino gehiago. Besteak beste, haurren jaiotzagatik ematen duten dirulaguntza eskatzerako orduan, artatu zuen langile publikoak ikusi zuenean Mikelek betetako paperean, haurraren amaren izena jartzeko espazioa hutsa zegoela, amaren izena jartzeaz ahaztu egin zela esan zion. Ahaztu ez zitzaioala adierazi

"GURASOEK EGIN BEHARREKO EDOZEIN TRAMITEETAN, BAKARRA IZATEA EZ DA AURREIKUSTEN"

zitonean, adopzio-data jartzea ahaztu zitzaioala esanaz jarraitu zuen. "Erakunde publiko batean horrelako egoerak gertatzea harrigarria da, suposatzen baita kasu ezberdinak artatzeko prest egon behar lukezela".

Harritu du baita ere, guraso bakar izatearen aukera ez dela aurreikusten edozein tramite egiterako orduan, esaterako haurreskola edo ikastetxeetako matrikulazioetan, dirulaguntza prozesuetan, eta abar.

Familia baten egunerokoari erritmoa hartzea zaila bada bi gurasorentzat, zer esanik ez guraso bakar denean: "Haurrak, batez ere txikiak direnean, 24 orduko dependentzia dute gurasoekiko, eta egunerokoan suertatu daitezkeen mila egoeretara ezin zara moldatu". Egongo da, noski, egokitu daitezkeenik, baina, ez da Mikelen kasua: "Nire egoera sozioekonomikoagatik ezin diot, adibidez, lan egiteari utzi". Baina

bere egoeran "oso inpaktu positiboa jaso duela ere jakinarazi du: "Familia bat haurrak eta bere gurasoek bakarrik osatu behar dute? Ez dakit, polita da, laguntza izatea; zaintza ingurune hurbilarekin partekatzea. Izeiren familia zabalagoa da; jende gehiagorekin dauka harreman estua. Jende askok ez du bizi laguntza hori eskaera moduan, baizik eta parte izate gisa, eta hori polita iruditzen zait".

Mikelen hausnarketa polit horrekin itxi behar dut erreportaje honen paperezko bertsio hau. Beste hainbeste orri bete nitzake herritarrak emandako testigantza ederrarekin, baina espazio hau dena da, eta interneteko argitalpenean izango duzue bertsio osoa irakurgai.

Bizitzan dena ez da zuria edo beltza. Mila esker, Mikel.

Erreportaje osoa www.txintxarri.eus atarian irakurgai

Ostadar Saskibaloiko seniorra finalean da

Talde urdin-beltzak Donostiako Inter 48-62 garaitu du Mons kiroldegian. Ander Otaegik zuzentzen duen taldeak ekainaren 12an Luberrri izango du aurrez aurre. Junior Errendimendu taldeak ere amaitu du lehen fasea. 81-69 galdu du Easoren aurka

Txintxarri

Ostadar Saskibaloiko taldeko I. seniorrak Inter taldearen aurka fase erregularreko azken partida jokatu zuen, maiatzaren 29an, Mons kiroldegian. Baina Benta berriko kiroldegian, Luberrri-Zarautz partidaren beste begi bat zeukaten jarrita. Izan ere, talde urdin-beltzaren finalerako txartela partida horretan baitzegoen jokoan.

I. Seniorra ez zen egoera onean iritsi neurketara. "Eneritz Buiza lesionatuta, Haizea del Olmo kanpoan eta asteoko entrenamenduak ez ziren onenak izan", azaldu du Ander Otaegi entrenatzaileak. Hala ere, ederki egin zion aurre neurketari.

Lehen laurdena erasoan hasi zuen Ostadarrek. Ane Alberdiren lana nabarmena izan zen. "13 puntu lortu zituen lehen laurdenean, joko gidatu, asistentziak... ezin izan zuten gelditu", aipatu du Otaegik. Defentsan ere gogor ibili zen; Interreko jokalaririk arriskutsuena kontrolatu zuten. Ondorioz, 8 eta 21 jarri zen aurretik talde-uridin beltza.

Bigarren laurdenean, berriz, etxeko taldea esnatu zen. Zonakako



Ostadarreko I. seniorrak, Mondragon Unibertsitatearen aurkako partidaren txintxarri.

defentsak ezarri eta senior taldeak zailtasunak izan zituen saskira gerturatzeko. Itxaso Merceroren bi tripleri esker aurretik jarraitzea lortu zuen Ostadarrek. Baina azken bi minutuetan, aurrez egindako lan guztia pikutara joan zen. Ostadarrek baloia galdu, hutsegite eta opariak egin zituen eta 10-0eko partziala egin zuen Interrek. Atsedenaldira 29-31 iritsi ziren.

Etxekoak taktika berarekin eman zioten hasiera hirugarren laurdenari eta Ostadarrek ez zuen

asmatzen. 33-29 jarri zen aurretik arerioa.

"Partida hasi baino lehen, barneko jokoan abantaila geneukala suposatzen zen, baina partida kanpoko jaurtiketekin asmatuta eraman genuen aurrera", azaldu du talde urdin-beltzeko prestatzaileak. Bi hiruko jarraian lortu, pare bat kontraeraso eta berriro ere partidaren aurretik jarri zuen Ostadar, 34-44.

Azken laurdenean markagailua kontrolatzen jakin zuen Otaegiren

taldeak. "Haiek gerturatzeko ziren bakoitzean, hiruko jaurtiketa batekin asmatzen genuen". Era honetara, I. seniorrak 48-62 garaitu zuen Inter.

Nahiz eta partidaren momentu zailak bizi, Ostadar Saskibaloiko prestatzaileak irakurketa ona egin du. "Zazpi hiruko sartzea lortu dugu, baita beste jaurtiketa batzuk kanpotik sartzea ere. Orokorrean partida ona izan da".

Finalerako txartela

Partida amaitzean, Benta Berritik iritsi ziren berriak ere onak izan ziren; Luberrri partida irabazi zuen eta ekainaren 12ko finalerako txartela lortu zuen Ostadarreko seniorrak. Luberrri izango du arerio. "Nahiz eta Zarautz gertu ibili den, Luberrri eta gu izan gara urteko bi talde onenak eta finalerako txartela merezitakoa izan da bi taldeentzat", adierazi du Otaegik.

Senior mailako taldearen 5. denboraldia da eta finalera iristen den lehen aldia da. Aurreko urteetan finalaurrekoetan kanporatu dute talde. "Aurten pauso bat egin dugu aurrera. Egia da denboraldia berezia izan dela, baina finalera iristea lortu dugu", adierazi du Ander Otaegik.

Partida zaila espero dutela ere aitortu du. Luberrri partida guztiak irabazi ditu eta Ostadarrek bakarria galdu du, Luberrriren aurka. "Ez gara faboritoak izango, partida zaila izango da, baina borrokatuko dugu".

Bosgarren postua jokoan

Bestalde, Junior errendimendu taldeak EASO Basket Ibaeta

Plagamania taldearen aurka jokatu zuen lehen faseko azken partida.

Sei jokalarirekin, horietako hiru minberatuak, jokatu zuen norgehiagoka talde urdin-beltzak. Hala ere, jokalariek ez zuten etsi eta azken laurdenera 64-57 iritsi ziren. Ostadarreko jokalariek nekea sumatzen hasi ziren eta arerioak erritmoa handitu zuen. Era horretara, 81-69 galdu zuen taldeak.

Multzoko 5. postua jokoan du orain taldeak. TAKE Redline Mekanika izango du aurrez aurre ekainaren 5ean, larunbatean, Tolosako Usabal kiroldegian.

Ez da hori Ostadar Saskibaloiko taldeko kideek jokatu duen partida bakarria izango. III. senior mailako taldeak etxean Irungo Erroibideren aurka jokatu du denboraldiko azken neurketa.

Saio irekiak

Saskibaloiko atala hurrengo denboraldia prestatze aldera, saskibaloian trebatu nahi diren 2009 eta 2013 urte artean jaiotako gaztetxoek deialdia egiten die hurrengo hiru igandeetan (ekainaren 6an, 13an eta 20an) Maialen Chourraut kiroldegian egingo diren saioetan parte hartzera. Bi ordutegi ezberdin izango dira: neskena, 09:30etik 10:45era eta mutilena, 11:00etatik 12:15era.

Bestalde, gainerako taldeetako jokalariek ere behar dituztela jakitera eman dute.

Informazio gehiago Ostadar SKTren webgunean, atalaren sare sozialetan edo 677 1637 51 zenbakian eskura dezakete interesatuek.

Euskal Herriko txapelketarako gutxieneko berriak

Buruntzaldea IKTKo igerilariak hemezortzi marka pertsonal berriak dituzte Buruntzaldea sarian

Txintxarri

Maiatzaren 29an, GIFeko Trofeo Jardunaldiko Buruntzaldea Saria lehiatu zen Andoaingo Allurralde kiroldegian. Buruntzaldea IKTK antolatutako hitzordu honetan talde antolatzaileko kideez gain, Fortuna KEko eta Hernani KEko igerilariak izan ziren igerian.

Buruntzaldea IKTK hamar igerilari aurkeztu zituen eta

guztira hemezortzi marka pertsonal berriak zituzten. Horietako batzuk, Euskal Herriko Udako Txapelketarako gutxieneko markak dira.

Buruntzaldea IKTKo igerilariak lortutako marka pertsonal berriak hauek izan ziren:

- Aintzane Sarobe: 100 m. bizkar proba, 1:06,58.
- Izaro Audikana: 200 m. lau estilo proba, 2:47,61.

- Garazi Etxeberria: 100 m. bular proba, 1:24,00 eta 100 m. lau estilo proba, 1:13,41.
- Iker Gandia: 50 m. bizkar proba, 36,61; 100 m. bizkar proba, 1:15,72; 50 m. tximeleta proba, 36,24 eta 200 m. lau estilo proba, 2:40,35.
- Jurgi Sukunza: 200 m. libre proba, 2:17,52 eta 50 m. bizkar proba, 35,78.
- Miren Sarobe: 50 m. libre proba, 32,52; 100 m. libre proba, 1:06,53; 100 tximeleta proba, 1:32,05 eta 400 m. lau estilo proba, 6:13,25.
- Nahia Goenaga: 50 m. libre proba, 36,24; 100 m. libre proba, 1:14,64; 200 m. libre proba, 2:30,05 eta 100 m. lau estilo proba, 1:20,22.



Buruntzaldea sarian parte hartu zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Horietatik, Jurgi Sukunzak, Miren Sarobek eta Garazi Etxeberriak Euskal Herriko Udako Txapelketarako txartela eskuratu dute 200 m. libre, 100

m. libre eta 100 m. lau estilo probetan, hurrenez hurren. Oraingoz, Buruntzaldea IKTKo hamar igerilari sailkatu dira proba horretan lehiatzeko.

Erregional Ohorezkoak, ezin Urnieta garaitu

Nahiz eta partida borrokatu, Ostadar SKTk 0-2 galdu du kopako jardunaldian. Ekainaren 5ean, larunbatez, zazpigarren postua izango du jokoan Michelingo kirol-gunean. Urola izango du aurrez aurre eta garaipenaren bila aterako da taldea

Txintxarri

Ostadar SKTko Erregional Ohorezko taldea kopako lehen postuetatik kanpo egon arren, sailkapenean ahal den postu onenean kokatzeko lehian ari da. Maiatzaren 29an, Urnietaren aurkako norgehiagoka jokatu zuen Alberto Callaak entrenatzen duen taldeak eta 0-2 galdu zuen.

Erregional Ohorezkoak ez zuen partida ongi hasi. Zelaian bere lekua aurkitzea kosta zitzaion. Arerioak, berriz, lasai jokatu zuen eta "eztabaidagarria" den penalti baten ondorioz, markagailuan aurre hartu zuen. Egoera horrek, Ostadar SKT esnatu eta joko moldatzen joan zen lehen zatiko lehen minutuetan nagusi izan arte. Tamalez, ezin izan zuen golik egin eta 0 eta leko markagailuarekin iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, Ostadar hobeto kokatu zen zelaian. Ez zuen lehen zati amaierako nagusitasun erabatekoa lortu, baina jokoaren erritmoa ederki ezarri zuen. Taldeak sortutako gol aukerak, ordea, urriak izan ziren. Ostadarrek ez zuen berdinketa lortzerik izan



Erregional Ohorezko mailako taldeak partida borrokatu zuen. TXINTXARRI

eta kontra batean erabaki zuen Urnietak partida.

Partidako azken minutuetan talde urdin-beltzak kolpeari aurre egiteko gola sartzeko ahaleginak egin zituen, baina ezinezkoa izan zen.

Alberto Calla entrenatzailearen hitzetan, "emaitza alde batera utzita, partida ona egin zuten jokalariek".

Aste honetan ere jarrera berdina izatea espero du prestatzaileak. Kopa ez baita amaitu. Ostadar SKTko Erregional Ohorezko zazpigarren postua lortzeko borrokatuko da. Urola izango du arerio ekainaren 5ean, 11:30etik aurrera, Michelingo kirol gunean eta arerioa garaitzea du buruan talde urdin-beltzak.



Alaves Gloriosas taldeko kideak, igoera ospatzen. DEPORTIVO ALAVES

Alaves Gloriosas taldearen igoera

Maiatzaren 30ean, Atletico Madril taldea 0-2 garaitu ostean, Alaves Gloriosa taldea Iberdrola Ligara igo da. Herritar bat dugu balentria horren erantzulezako bat, Irati Urruzola 'Urru' defentsa.

Azken momentura arte, herritarrak eta bere kideek nerbioak dantzan izan dituzte denboraldiko helburua lortzeko, Iberdrola Ligarako igoera. Lehen fasean Iparraldeko B multzoko buru amaitu zuen taldeak. Hamasei partida jokatu eta horietatik hamabi garaitu, bat berdindu eta hiru galdu zituen. Bigarren fasean, gehiago borrokatu behar izan dute Gloriosoek eta azken jardunaldian lortu dute ametsa.

Atheticeen bigarren taldean hiru denboraldi egin ostean, Urruzolak 2020-2021 denboraldi hasieran egin zuen bat Alaves Gloriosas taldearekin.

Gauza txikiak, garrantzitsuak

Nahiz eta denboraldia amaitzeko partida bat falta, irakurketa ona egin du Erregional Ohorezko Mailako entrenatzaileak. "Jokalariek denboraldiko partidetan egindako lanarekin pozik nago. Ez dugu zortea izan. Arerioak hobeak izan dira eta gauza txikienek ere erabakitzen dituzte partidak".

Horrez gain, COVID-19aren aurkako neurriek eragindako geldialdiak taldearen jardunean eragin duela nabarmendu du. "Denboraldi-aurrea ongi hasi zuen taldeak. Egoera zela eta, geldialdia egin behar izan genuen eta ostean, bat-batean hasi behar izan ginen lehian entrenamendu gutxiarekin. Horrek ez digula lagundu uste dut".

Logroño garaituz amaitu du denboraldia Añorgak

"Berezia". Hori da Javi Solchaga I. Nazionalean lehiatu den Añorga KKEren entrenatzaileak maiatzaren 29an jokatu zuen partida defintzeko erabili duen hitza. Añorgak ez zeukaten ezer jokoan; I. Nazionaleko C multzoko laugarren postua ziurtatua zuen. Baina entrenatzaile taldearen azken partida zen. Solchagak eta bere lan taldeak, Julen Ormazabal eta Jon Presa herritarrak barne, duela bi aste jakinarazi zien jokalariei hurrengo denboraldian ez zirela eurekin egongo. Beraz, euren azken partida izan zen Logroñoren aurka jokatu zutena.

"Illusioz atera ginen bai teknikariak, baita jokalariek ere", aipatu du Solchagak. Eta jokoan nabaritu zen. Lehen minututik erasoan hasi eta saria lortu zuen Añorgak. Izaskun

San Aniceto herritarrak Logroñoako atezainaren akats bat baliatuz sartu zuen lehena.

Taldeak garaipena eskaini nahi zion talde teknikoari eta defentsan, zein erasoan lan eta lan egon ziren jokalariek. Horri esker, 21. minutuan, Nora Sarriegiren jaurtiketak atezaina goitik gairatuta zuen, eta 34. minutuan, jokalaria horren jaurtiketa baten alderatzea ongi baliatu zuen Vanessa Carton kapitainak, baloia gurutzatu eta hirugarren gola egiteko.

Logroñoek ez zuen amore eman eta bi minutura burukada bati esker, tarte murriztu zuen.

Bi taldeak golaren bila jarraitu zuten arren, 3 eta 1ekoarekin joan ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian ere borrokatua izan zen, baina markagailuak berdindu jarraitu zuen. Añorgak eguneko helburua lortu zuen: entrenatzaile

taldeari garaipen batekin egindako lana eskertu eta agur esatea.

Solchagak bigarren fase honetako irakurketa ona egin du. "Pradejon eta Osasuna genituen taldean eta horiek guk baino puntu gehiago zituzten. Eurek igoera lortzeko motibazio hori zeukaten eta nabaritu da. Hala ere, guk borrokatu dugu. Dena ematen saiatu gara eta aurten ezin izan gara igoerarako sailkatu. Pena da".

2019-2020 denboraldiko igoera fasea ere ekarri du gogora. "Iaz lortutakoa ikaragarria izan zen. Urte arraroa izan zen, hori bai. Baina badakigu kirolean batzuetan irabazten duzula eta besteetan galdu. Dena ematen duzunean, ez dago besterik".

I. nazionaleko taldeak "hurrengo urtean berriro borrokatu eta igoera jokatu ahal izatea" espero duela aitortu du herritarrak.



Izaskun San Aniceto, jaurtitzen. CONCHI SANCHEZ FRAL

Ostadar SKT, Gipuzkoako txapelketako podiumean

Ostadar Atletismoa sailak Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketarako taldea antolatu du eta hirugarren postuan sailkatu da. 4x100 metro lasterketan ere bigarren izan da. Bakarkako lehietan sei domina eskuratu ditu taldeak; urrezko eta zilarrezko hiruna

Txintxarri

Ostadar Atletismoa saileko kideek Gipuzkoako txapelketa lehiatu zuten maiatzaren 29 eta 30eko asteburuan. Kluben arteko txapelketan, 4x100 metroko lasterketan zein bakarkako lehietan podiumean izan ziren herriko atletak. Guztira zazpi domina eta klub txapelketako hirugarren postua eskuratu zituen.

Bakarkako lehietan, jaurtiketa probetan lortu ziren domina gehien: bi urrezko eta zilarrezko eta brontzezko bana.

Maidar Rekondok bi probetan parte hartu zuen disko-jaurtiketa proban eta mailu-jaurtiketan eta urrezko eta zilarrezko dominak eskuratu zituen, hurrenez hurren.

Lehiaketako bigarren jaurtiketan lortutako 43,83 metroek eman zion Rekondori garaipena disko-jaurtiketa proban. Marka horrekin gainera bere marka pertsonala ondu zuen.



Ostadar atletismo taldeko kideak, klub txapelketa podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

Mailu-jaurtiketa proban, herritarrek eta arerioek ezin izan zioten Atletico San Sebastianeko Dorleta Oyarbideren nagusitasunari aurre egin. Rekondok, ordea, Real Sociadadeko Inge Larzabalekin

borrokatu behar izan zuen bigarren postua. Lehiaketako azken saiakerak eraman zuen herritarra podiumeko bigarren mailara.

Xabalina eta pisu-jaurtiketa probetan beste bi domina lortu

zituen Ostadar Atletismoa taldeak, Oihana Igarritzen eskutik.

31 metro baino gehiagoko markarekin xabalina probako garaile izan zen herritarra eta pisu-jaurtiketa proban hirugarrena izan zen, 10,48 metroko markarekin.

Jauzietan ere podiumean

Dominak izan ziren ere jauzi probetan. Naroa Furundarenak ere jauzi hirukoitzean lortu zuen sari nagusia, urrezko domina eta Enara Gonzalez bigarren izan zen luzera-jauzi proban.

Furundarenak zailtasunak izan zituen hirukoitzeko lehiaketan; baliogabeko hainbat jauzi egin zituen. Hala ere, bosgarren saiakeran 12,42 metroetara iritsi zen eta azken jauzian arerioek ezin izan zuten marka gainditu.

Gonzalezi lehen postuak ihes egin zion. Luzera-jauzi probako buru jarri zen bigarren jauzian, 5,51 m. Hirugarrenean, berriz, bere marka pertsonala ontzen duen 5,64 metroko jauzia egin zuen eta Espainiako 20 urtez azpiko gutxienez hiru zentimetro geratu zen. Tamalez, azken jauzian Atletico San Sebastian taldeko Ainhoa Intxaurrendok gainditu zuen, 5,95 metro, eta Gonzalezek ez zuen erantzuterik izan.

4x100 m. lasterketan ere parte hartu zuen Ostadarrek. Naroa Elvirak, Enara Gonzalezek, Naroa Furundarenak eta Maidar Abetek

osatutako lauokak bigarren postua lortu zuen.

Horrez gain, Maidar Abetek 100 m. eta 200 m. lasterketako marka pertsonalak ondu zituen, 13,03 eta 27,04 segundo, hurrenez hurren.

Klub txapelketan hirugarren

Taldeko kide guztien jardunari esker, 37 puntu lortu zituen Ostadarrek, eta hirugarren sailkatu zen Klub txapelketan Super Amara BAT eta Real Sociedad taldeen atzetik.

Oscar Goikoetxea prestatzaileak azaldu duenez, aurten lehenengoz absolutu mailako emakumeen taldea osatu du elkarteak eta helburua bete du, klub txapelketan podiumean egotea.

Ostadar Atletismoa entrenatzailea pozarren agertu da taldeak egindako lanarekin. eta atletak ohikoak ez dituzten probetan parte hartu behar izan dutela nabarmendu du. "Berrogeialdiak eta bidairen bat tarteko, baja batzuk izan ditugu, eta ahal izan dugun moduan taldea osatu dugu. Ongi lehiatu dira. Taldearen hobebeharrez atletak askok ohikoak ez dituzten probetan lehiatu behar izan dute".

Ostadar Atletismoa taldeko kideez gain, beste herritar batzuk ere izan ziren lehiak: 100 m. lasterketan, Atletico San Sebastianeko Nerea Eugi eta Atletico Renterriako Jose Ramon Latorre eta 1.500 m. lasterketan, Aloña Mendi KEko Jon Presa.

Ostadar Boleibola taldeak, "denboraldi bikaina"

Kadete mailako boleibol taldea sortu eta seniorra indartzeko deialdia egin du talde urdin-beltzak

Txintxarri

Ostadar Boleibola taldeak hirugarren postuan amaitu du denboraldia. Lehengo astean, sailkapeneko behin behinean bigarren postuan bazuden ere, Kostakasek irabazitako partidak eta hirugarren postura eraman du talde urdin-beltza.

2019. urtean sortu zen Ostadar Bolibol saila, eta Asier Acuriola entrenatzaileak nabarmendu bezala arlo guztietan hobetu du taldeak. "Denboraldi bikaina egin dugu. Taldearen hazkundera eta mailaren hobekuntza nabarmenak

izan dira. Aurreko denboraldian hasi ginen lanean eta hiru garaipen eta lau porrot izan genituen; aurtengoan, berriz, sei irabazi ditugu eta bi galdu.

Taldeak denboraldi osoan bere indargunea mantendu duela jakitera eman du, "gogo, ilusio eta konpromiso handia dute jokalariek entrenamenduetan. Bide hori jarraikiz maila hobetzeaz gain, kirol honetaz gozatu eta besteei kirol honetaz gozaraziko diete".

Hurrengo denboraldian kualitatiboki eta kuantitatiboki

hazten jarraitzeko asmoa agertu du Ostadar Boleibol taldeko arduradunak. "Senior talde mantendu eta kadete mailako taldea sortu ahal dela dirudi; hainbat gazte daude hasi nahian."

Deialdia

Azken asmo hori egia bihurtu nahian, taldeak bi deialdi antolatu ditu, Maialen Chourraut kiroldegian.

2005 urtean edo lehenago jaiotakoek ekainaren 7an, arratsaldeko 18:30etik 19:30era dute hitzordua. 2006 eta 2007 urteetan jaioteakoek, berriz, ekainaren 11n, 16:30etik 17:30era.

Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, ostadarboleibola@gmail.com helbide elektronikora edo 661 55 26 86 WhatsApp zenbakira idatzi behar dute herritarrek.



LASARTE-ORIA TRAIL


Gorbeira igoera ederra

Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko kideek Gorbeira igo ziren, maiatzaren 29an, igandean. Eguraldia lagun, mendi elkarteko bazkide eta jarraitzaileek osatutako taldeak 1.000 metroko igoera metatua zuen 25 kilometroko ibilaldia egin zuten Murgiatik Gorbeiko tontorrera. Joan eta etorriaren ostean, indarrak berreskuratzeko bazkaria ere izan zuten giro ederrean. Elkarteko kideak III. Mendi Festa prestatzen ari dira, eta ekainean lasterketetan parte hartzen hasiko direla ere aurreratu dute.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Enaut
Zorionak Enaut!! Ondo pasa zure 18 urtebetetzea!! Besarkada erraldoi bat, Oier, aiton-amona eta familien partetik bihotzez. Eta segi horrela, orain arte bezain jator!! Muxuak



Xuban
Zorionak maitia!! Ze azkar handitzen ari zaren. Zure irrifar polit horrek indartzen gaitu, aupa gure potxolito txikia!!



Iker
Gero eta gutxiago geratzen zaizu zenbat urte daukazun ahazten duzun adin horretara iristeko.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.



Jaio da!


Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943 37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 4




Larunbata, 5




Igandea, 6




Astelehena, 7




Asteartea, 8



Asteazkena, 9



Osteguna, 10



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 4	DE MIGUEL	EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-22:00
LARUNBATA, 5	DE ORUE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 6	DE ORUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 7	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 8	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 9	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 10	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

SUDOKUA

		9				6		8
6			9	4	5		3	
		1		7		5		
8	7		4				2	
	3		1	2				5
	1			8	9			
				6	2	4		
	8	3						6
5			3			9		

OHARRA

Urrezko ezteiak egin dituzten bazkideen izen-emate epea irekiko du Biyak Batek

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, maiatzaren 15etik irailaren 15era izena eman ahalko dute 2020ean edo 2021ean urrezko ezteiak egin dituzten elkarteko bazkideek. Bazkide-txartela eta familia-liburua erakutsi beharko dituzte inskripzioa egiterakoan.

Heriotzen berri eman

Ingurukoren baten heriotzaren berri TXINTXARRI aldizkarian *Heriotzak* atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren, izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERRREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERRI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZTA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ERRENTAN EMAN
Garaje marra alokatzen dut Urdaneta eraikinean, beheko solairuan. Sarbide eroso. Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.
Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa. Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.
Garaje bat alokatzen da Donostian, Antigua auzoko Iruña kalean. Harremanetarako zenbakia, 671 60 57 31.

LANA
ESKAITZA
Zaintzailea behar da adineko bi pertsona zaintzeko, interna modura, osasun-bazkide ziurtatua, esperientzia eta adinekoak zaintzeko gomendioak dituen. Harremanetarako zenbakia, 685 70 44 40.

ESKARIA
Pertsona eskaintzen da pertsona adinduen barmeko zaintzaile modura lan egiteko. Orduka ere izan daiteke Erreferentzia onak eta esperientzia du. Harremanetarako zenbakia, 622 747 833.
Pertsona eskaintzen da hainbat zereginetan lan egiteko: sukaldaritza laguntzaile, tabernan pintxoak egin, garbiketa lanak egin, pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egin. Asteburuetan ere lan egiteko prest.

Harremanetarako zenbakia, 643 80 37 87.
Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo pertsona adinduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.
Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.
Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

SALEROSKETA
SALDU
CITROEN C3 kotxe berria salgai. Urtebete soilik. 1.000 km egin gabe. Egoera pertsonalagatik saltzen dut. Harremanetarako zenbakia, 687 35 50 95.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak
Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzua
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 4

LASARTE-ORIA Erakusketa
Brancussi akademiako ikasleen lanen erakusketa irekiko da. A. Mercero gunea, 18:30ean.

ANDOAIN Antzerkia
Txalo produkzioak Philippe Claudel idazlearen *Konpromisoa* komedia eskainiko du. Sarrera, 12 euro. Bastero kulturegunea, 19:00etan.

ZUBIETA Erakustaldia
Zubieta Udaberri Astearen barruan, errebotek erakustaldia egingo da. Eguraldiaren arabera, errebotek plazan edo pilotalekuan egingo da. Izena ematea itxi da. Zubieta errebotek plaza, 17:00etan.

LARUNBATA 5

LASARTE-ORIA Tailerra
Lasarte-Oriako Udalak txirindak konpontzeko tailerra antolatu du. Ez da beharrezkoa aurrez izena ematea; ikastaroaren egunean bizikletarekin joan behar da enparantza horretara. Jaizkibel plaza, 11:00etatik 13:30era.

ASTIGARRAGA Hitzaldia
BARATZeko KONTUAK hitzaldia eskainiko dute. Garaiako barazkiak, etxeko balkoian baratze txikia, konposta... eta bestea hainbat gai jorratuko dira. Gazte Asanbladak antolatutako ekimena. Kontxaenea, 11:00etan.

USURBIL Musika
Txalaparta eta instrumentu klasikoak uztartzen dituen Basabi taldeak *Kronos* azken lana eskainiko du. Kimu Txalaparta taldearen *Kimu Berriak* ikuskizunaren ale bat ikusteko aukera ere izango da. Sarrerak *usurbilkultura.eus* atarian eskuragarri, 10 eurotan. Jexux Artze kultur elkarteak antolatutako. Sutegiko areto nagusia, 19:00etan.

IGANDEA 6

USURBIL Bertsoak
Bertsoaren harria proiektuaren barruan Koldo Izagirrek Udarregi



LASARTE-ORIA Hitzaldi-solasaldia Sare ekimenak *Ibilian-ibilian, etxerako bidean* dinamika jarri du martxan Hego Euskal Herrian. Gipuzkoak emango dio hasiera eta abuztuaren 21a bitartean, bi asteetan behin eskualde bati egokituko zaio ekimenak antolatzea; hurrengo bi asteetan Buruntzaldeari dagokio. Horregatik, Lasarte-Oriako Sarearen eskutik, Inaxio Oartzabal Sareko koordinatzaileak *Euskal Presoak; nondik gatoz, non gaude eta nora goaz* hitzaldi-solasaldia eskainiko du. Osasun zentroko 2. solairuko gela balioanitza, astearte, 18:30ean.

bertsolaritari buruzko hitzaldia eskainiko du. Bitartean, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak gidatuko ditu saio librean. Sarrera doakoa da, baina *usurbilkultura.eus* atarian izena eman behar da. Gaur amaitzen da inskribatzeko epea. Sutegiko areto nagusia, 18:00etan.

ASTELEHENA 7

USURBIL Ikusentzunezkoa
Izadi. Espetxean jaiotako atzera kontaketa dokumentala eskainiko da. *Ibilian-ibilian, etxerako bidean*

dinamikako ekimena. Sutegiko areto nagusia, 19:00etan.

ASTEARTEA 8

LASARTE-ORIA Hitzaldia
Euskal Presoak; nondik gatoz, non gaude eta nora goaz hitzaldi-solasaldia antolatu du Lasarte-Oriako Sarek. *Ibilian-ibilian, etxerako bidean* dinamikako ekimena. Osasun zentroko 2. solairuko gela balioanitza, 18:30ean.

ZUBIETA Dantza
Zubieta Udaberri Astearen barruan,

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

Asterix: Edabe sekretua
Igandea: 12:00.

Cruella
Larunbata: 19:30.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30.

ASTIGARRAGA

ERRIBERA

Ilargi guztiak
Igandea: 19:00.

HERNANI

BITERI

Hijos del sol
Larunbata: 19:00

Igandea: 19:00.
Astelehena: 16:30.

USURBIL

URBIL

Cruella
Ostirala: 15:55,
18:05, 19:00,
19:45, 21:10.

Larunbata: 15:55,
18:05, 19:00,
19:45, 21:10.

Igandea: 15:55,
18:05, 19:00,
19:45, 21:10.

Expediente Warren: Obligado por el demonio

Ostirala: 15:50,
16:45, 17:50,
18:35, 19:30,
20:35, 21:20.

Larunbata: 15:50,
16:45, 17:50,
18:35, 19:30,
20:35, 21:20.

Raya y el último dragón

Ostirala: 15:45, 18:30.

Larunbata: 15:45, 18:30.

Igandea: 15:45, 18:30.

Spiral: Saw

Ostirala: 15:40,
18:45, 21:15.

Larunbata: 15:40,
18:45, 21:15.

Uno de nosotros

Ostirala:
16:00, 21:05.
Larunbata:
16:00, 21:05.
Igandea:
16:00, 21:05.

jUpsss! 2 ¿Y ahora dónde está Noé?

Ostirala: 15:45.
Larunbata: 15:45.
Igandea: 15:45.

El hobby: un viaje inesperado

Ostirala: 16:05.
Larunbata: 16:05.
Igandea: 16:05.

dantza erakustaldiak izango dira. 17:00etan, baleta eta dantza erakustaldia izango dira; 18:00etan, berriz, plaza dantzen txanda izango da. Eguraldiaren arabera, errebotek plazan edo pilotalekuan egingo da. Sarrera doakoa da, baina *usurbilkultura.eus* atarian izena eman behar da ekainaren 6a baino lehen. Zubieta errebotek plaza, 17:00etatik aurrera.

HERNANI Literatura
Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik mintegian Eider Rodriguezen *Idazleen gorputzak* lana aztertuko da. Kattalin Minerrek zuzendutako saioa izango da. Sarrera librea da, gelaren edukiera bete arte. Biteri kultur etxea, 19:00etan.

ASTIGARRAGA Literatura
Mario Benedetti idazlearen *Udaberri kanoi-hautsia* aztertuko dute.

Joannes Jauregik gidatuko du saioa. Parte-hartze irekia eta doakoa da. Erribera kulturegunea, 19:30ean.

OSTEGUNA 10

ZUBIETA Udaberri Astea
Zubieta Udaberri Astearen barruan, 17:00etan, komiki tailerra eta 18:00etan, magia ikuskizuna izango dira. Eguraldiaren arabera, errebotek plazan edo pilotalekuan egingo da. Sarrera doakoa da, baina *usurbilkultura.eus* atarian izena eman behar da ekainaren 8a baino lehen. Zubieta errebotek plaza, 17:00etatik aurrera.

LARUNBATA 12

LASARTE-ORIA Musika
Kai Nakai abeslariaren kontzertuaz gozateko aukera izango da. Sarrera, 5,50 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

Ikasturtean zehar landutako artelanak erakusten

Ekaineko agenda kulturalari hasiera emateko, Brancussi akademiak XVI. pintura eta margolaritza erakusketa antolatu du. Gaur, ekainaren 4a, irekiko ditu atearak erakusketak Antonio Mercero aretoan.

Ikasturte osoan zehar lanean aritu eta gero, Jose Manuel Monge irakaslearen ikasleek euren koadroak erakutsiko dituzte. Adinaren arabera, akrilikoarekin edo oleoarekin egindako lanak izango dira

Ekainaren 11ra arte, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era ikusgai izango da erakusketa.



txintxarri

Deskontu bereziak herrikoentzat!

San Pedrotako zenbaki berezia ekainaren 25ean

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!

Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66

OSTADAR S.K.T.

21/22 DENBORALDIRAKO IZEN-EMATEAK: Ekainaren 1etik 18ra

atletismoa boleibola egokitua eta inklusiboa futbola saskibaloia errugbia

Informazioa: 943 36 04 33 | Geltoki kalea, 25 | www.ostadarskt.eus

USURBILGO LANBIDE ESKOLA
CIFP USURBIL LHII

AURREMATRIKULA
Maiatzak 31 - Ekainak 18

Administrazioa eta Kudeaketa
Energia eta Ura
Instalazioa eta Mantenua
Fabrikazio Mekanikoa
Elektrizitatea

STEAM ERASMUS + DUAL ETHAZI Lan Poltsa

Hartu hitzordua!!!
943 364600

www.lhusurbil.eus